



## **TICKETBAI BETEBEHARRETIK SALBUESTEKO ESKAERAN INFORMAZIOA ZABALTZEKO KOMUNIKAZIOA**

Estrategia Teknologikoko Zuzendariordetza Nagusian TicketBAI obligazioa betetzetik salbuetsi edo geroratzeko eskaera sartu da, 3/2020 Foru Arauak eta hura garatzen duten xedapenek Gipuzkoan erregulatutakoaren arabera.

Aurrenik, jakinarazten dizugu ezen, makina banagailuen sektoreari dagokionez, TicketBAI obligazioa erabat betetzeaz gain, hau da, ondasun entrega edo zerbitzu prestazio bakoitzari buruzko informazioa ia berehala eta telematikoki bidaltzeaz gain (telemetria edo antzeko sistema baten bitartez), onartu egingo dela obligazio hori behin-behinik eta aldi baterako betetzea, betebeharraren alderdiren bat salbuetsita, betiere TicketBAI obligazioa betetzeak eskatzen duen egokitzapena errazte aldera.

Hala, aldi baterako bete ahal izango da obligazioa, makina bakoitzeko laburpen dokumentu bakar bat bidaliz, datuak EVA/DTS artxibotik (Europako Vending Elkartearen Datuak Bidaltzeko Estandarra) edo, hala badagokio, DEX/UCS protokolutik aterata edo, halakorik ezean, makinaren kontagailuaren datuak erabilita. Funtsean, honela jardun beharko litzateke:

1) Operadoreak EVA-DTS fitxategia atera behar du makina bakoitzetik, gutxienez hilean behin. Ateratzen den fitxategi bakoitzeko, TicketBAI fitxategi bat sortuko litzateke.

## **COMUNICACION DE AMPLIACION DE INFORMACION DE LA SOLICITUD DE EXONERACIÓN DE LA OBLIGACIÓN TICKETBAI**

Ha tenido entrada en esta Subdirección General de Estrategia Tecnológica solicitud de exoneración o aplazamiento para el cumplimiento de la obligación tributaria denominada TicketBAI regulada en Gipuzkoa en la Norma Foral 3/2020 y disposiciones que la desarrollan.

En primer lugar, se le informa que en relación con el sector de máquinas expendedoras, además del cumplimiento la obligación TicketBAI en su integridad, esto es, remitiendo la información de cada operación de entrega de bien o prestación de servicio de forma prácticamente inmediata y telemática a través de un sistema de telemetría o similar, se va a proceder a admitir que el referido cumplimiento de la obligación puede llevarse a cabo provisional y transitoriamente, exonerando algún aspecto del mismo, al objeto de facilitar la adaptación al cumplimiento de la obligación TicketBAI.

Así, temporalmente se puede cumplir esa obligación a través de la remisión de un único documento resumen por cada máquina en función de los datos extraídos del archivo EVA/DTS “Estándar de Transmisión de Datos de la Asociación Europea del Vending” o en su caso del protocolo DEX/UCS o, en su defecto, con los datos del contador que disponga la máquina. Esencialmente la operativa sería:

1) El operador hará una extracción del fichero EVA-DTS de cada máquina con una frecuencia o periodicidad al menos mensual. Por cada extracción se generaría un fichero TicketBAI. La información proporcionada se



Emandako informazioa lerrotan xehakatuta joan daiteke, baita agregatuta aurkeztu ere BEZ tasa bakoitzeko.

2) Ukitutako zergen preskripzio epeak dirauen bitartean, operadoreak aldaketarik gabe gorde behar ditu EVA-DTS fitxategiak edo horien baliokideak. Fitxategietako CRC kodeak osotasunaren frogagiri gisa balioko du auditoretza edo ikuskapenetan.

3) EVA-DTS fitxategiaren erauzketa bakoitzean, "Since Inicialización" eremuen balioa adieraziko da. Beraz, epealdiko eragiketak honela kalkulatu dira: salmenta kopuruak eta «Since Initialization» eremuen zenbatekoak ken aurreko erauzketa baliokideak.

4) EVA-DTS fitxategietan ez da zehazten zer BEZa dagokion artikulua bakoitzari. Operadorearen erantzukizuna da artikulua bakoitzari dagokion BEZ tasa zuzen aitortzea, haren salmenten guztizko datuak artikuluari dagokion BEZarekin gurutzatuz, TicketBAI fitxategietan jasotzen den BEZaren banakapena sortzeko.

Aurkeztutako salbuespen edo gerorapen eskaeran ez duzu adierazi TicketBAI obligazioa aldi baterako modalitatean bete dezakezu edo hori ezinezkoa zaizun. Hori dela eta, eskaera tramita dezagun, datu gehiago eduki behar ditugu, hala nola zure makinaren parkearen zehaztapena, haien ezaugarriak eta antzinatasuna. Informazio hori beharrezkoa da TicketBAI obligazioa behin betiko modalitatean betetzeko epea eta erritmoa zehazte aldera, hala badagokio.

Horregatik guztiagatik, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuak, zeinaren bidez onesten baita Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga kudeaketari eta zerga arloko jarduketari eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua, 39.2 eta 47. artikuluetan

puede desglosar en líneas por cada artículo y medio de pago, o presentar la información agregada por cada tipo de IVA.

2) El operador tendrá que conservar los ficheros EVA-DTS o similar sin alterar durante el plazo de prescripción de los impuestos afectados. El código CRC presente en los ficheros servirá como comprobante de integridad de cara a auditorías/inspecciones.

3) En cada extracción del fichero EVA-DTS se informará del valor de los campos "Since Inicialización". Por tanto, las operaciones del periodo se determinarán por la resta de números de ventas e importes de los campos "Since Initialization" con los valores de la extracción anterior.

4) En los ficheros EVA-DTS no se especifica el tipo de IVA de cada artículo. Será responsabilidad del operador el declarar correctamente el tipo de IVA de cada artículo, cruzando los datos de totales de ventas de cada artículo con el IVA que le corresponde para generar el desglose de IVA que se incluye en los ficheros TicketBAI.

En la solicitud de exoneración o aplazamiento presentada, no se indica la posibilidad o imposibilidad de cumplir la obligación TicketBAI en la modalidad transitoria establecida. Por ello, para tramitar dicha solicitud resulta necesario disponer de datos adicionales, entre otros, especificación del parque de máquinas que dispone, sus características, y su antigüedad. Esta información resulta necesaria para determinar, en su caso, el periodo y el ritmo para el cumplimiento de la obligación TicketBAI en la modalidad definitiva.

Por todo ello, de conformidad con lo establecido en los artículos 39.2 y 47 del Decreto Foral 5/2020 de 21 de abril, por el que se aprueba el Reglamento de gestión tributaria y de desarrollo de las normas comunes sobre actuaciones y procedimientos tributarios del



ezarritakoarekin bat etorri eta zure eskaera izapidetzeko, jakinarazpen honen bidez eskatzen dizugu **hilabeteko epean** honako hau adieraz dezazun:

- Salbuesteko eskaera TicketBAI obligazio osoagatik edo haren alderdi jakin batengatik egiten duzun (online bidalketa, esate baterako) edo, bestela, frogatu dezazula TicketBAI obligazioa aldi baterako modalitatean betetzea ezinezkoa zaizula.
- Era berean, TicketBAI obligazioa behin betiko modalitatean betetzeko erritmoa eta epea zehazte aldera, garrantzitsutzat jotzen dituzun alderdi guztiei buruzko datuak, txostenak eta egiaztatgiriak aurkeztu beharko dituzu.

Beharrezko informazioa bidaltzeari begira, honekin batera doakizu aipatutako apartatuak betetzeko eredu gisa balio dezakeen eranskina.

Hilabeteko epea igaro eta errekerimendu honi erantzuten ez badiozu, eskaeran atzera egin duzula ulertuko dugu, eta artxibatu egingo dugu beste izapiderik egin gabe.

Donostia a 16 de agosto de 2022

LA SUBDIRECTORA GENERAL DE ESTRATEGIA  
TECNOLOGICA

Maria del Coro Pereiro Zabala

Territorio Histórico de Gipuzkoa, y al objeto de tramitar su solicitud, por medio de esta comunicación se le requiere para que en el plazo **de 1 mes** indique:

- Si la solicitud de exoneración es de la totalidad de la obligación TicketBAI o de algún aspecto, tal como la remisión on line, manifestando por una parte la posibilidad - o en su caso, acredite la imposibilidad - de cumplimiento de la obligación tributaria TicketBAI en la modalidad transitoria establecida.
- Aporte, asimismo, los datos informes y cuanta documentación justificativa considere oportuna de cuantos extremos tengan relevancia al objeto de determinar en su concreto caso, el ritmo y plazo de cumplimiento de la obligación TicketBAI en la modalidad definitiva.

Al objeto de remitir la información necesaria, se le remite adjunto Anexo que puede servir de modelo para cumplimentar los apartados indicados

Se le informa que, transcurrido el plazo de 1 mes sin haber atendido el presente requerimiento, se le tendrá por desistido de su petición y se procederá a su archivo sin más trámite.

Donostia, 2022ko abuztuaren 16a

ESTRATEGIA TEKNOLOGIKOKO ZUZENDARIORDE  
NAGUSIA

Maria del Coro Pereiro Zabala



## ERANSKINA

1) ¿BA AL DUZU GAUR EGUN TELEMETRIA SISTEMARIK MAKINETAN EDO TA KUDEAKETA SISTEMAN?

BAI

EZ

2) BAI EZKOAN, ZEHAZTU ZER GAILUK (MAKINAK) DUEN TELEMETRIA SISTEMA BAT:

Modelo edo gailuaren deskribapena	Makinaren serie zk. (makina bakoitzaren identifikazioa)	Erosketa eguna

3) TELEMETRIA SISTEMARIK EZ BAINA EVA/DTS EDO ANTZEKO ARTXIBOA BADUTEN GAILUEN (MAKINEN) XEHETASUNA:

Modelo edo gailuaren deskribapena	Makinaren serie zk. (makina bakoitzaren identifikazioa)	EVA-DTS datuak since initialización (eskaeraren datan)	Erosketa eguna






5) ESKATZEN DUEN SALBUESPENA:

- TICKETBAIREN SALBUESPEN PARTZIALA, MAKINAK TELEMETRIA EDUKI BAINA KUDEAKETA SISTEMAK FITXATEGIAK ONLINE BIDALTZEKO AUKERARIK EMATEN EZ DUEN KASUETARAKO.
- TICKETBAIREN SALBUESPEN PARTZIALA, EVA/DTS ARTXIBOA IZANEZ GERO.
- TICKETBAIREN SALBUESPEN OSOA, EVA/DTS ARTXIBORIK EDO ANTZEKORIK EZ DUTEN MAKINETARAKO.



## ANEXO

1) ¿ACTUALMENTE CUENTA CON SISTEMA DE TELEMETRIA EN LAS MAQUINAS Y/O EN SU SISTEMA DE GESTIÓN?

SI

NO

2) EN SU CASO, DETALLE DE DISPOSITIVOS (MAQUINAS) QUE SI DISPONEN DE SISTEMAS DE TELEMETRIA:

Descripción Modelo-Dispositivo	Nº Serie Máquina, (Identificación de cada máquina)	Fecha de Adquisición

3) DETALLE DE DISPOSITIVOS (MAQUINAS) QUE NO DISPONEN DE SISTEMAS DE TELEMETRIA, PERO DISPONEN DE ARCHIVO EVA/DTS O SIMILAR:

Descripción Dispositivo - Modelo	Nº Serie Máquina, (Identificación de cada máquina)	Datos EVA-DTS since inicialitación (a fecha de solicitud)	Fecha de Adquisición








5) EXONERACION QUE SOLICITA:

- PARCIAL TICKETBAI, PARA SUPUESTOS EN LOS QUE LA MAQUINA DISPONE DE TELEMETRIA, PERO EL SISTEMA DE GESTION NO PERMITE REMISION ON LINE DE FICHEROS.
- PARCIAL TICKETBAI, EN CASO DE DISPONER ARCHIVO EVA/DTS.
- TOTAL TICKETBAI, PARA MAQUINAS QUE NO DISPONEN DE ARCHIVO EVA/DTS O SIMILAR.



